

## **ZALDIBIAN HERRIGINTZAN udal taldearen mozioa**

**Gure herriarekiko daukagun konpromiso etenezina berresten dugu.**

**Gizartearen borondate askearekiko gure konpromisoa. Konpromiso hori betez, esaten dugu ezin zaiola uko egin Euskal Herriaren izatea aitortzeari eta Euskal Herria borondate kolektiboa duen subjektua dela kultura, ekonomia eta politika aldetik.**

**Uste osoz, berresten dugu, euskal herritarren erabakitze ahalmenaren aitortza, ezinbesteko eskubide demokratikoa dela. Euskal gizarteak, bere aniztasunetik, behin eta berriro adierazi du, erabakitze eskubidearen aldeko iritzia.**

**Nahi kolektiboa gauzatzeko aukeran datza aniztasuna mantentzeko berme demokratikoa; nazioen subiranotasunen betorik gabe gauzatzea, alegia, subiranotasun horietatik datozen borondate kolektiboak eratzea baztertzen dutenak.**

**Bere burua horrela definitzen duen edozein demokraziaren funtsa da aniztasunarekiko izan behar duen errespetua. Baina aniztasuna ez da bitarteko erretoriko bat soilik, norbanako zein taldeko eskubide oro errespetatuko dituen elkarbizitzaren oinarria baizik.**

**Argazkiak uniformatu nahi izateak totalitarismora eramaten gaitu, inoiz ez elkarbizitzara.**

**Beraz, demokraziaren uste sendo horietatik oso urrun dago bandera espainiarra gure erakunde guztietan ezarri nahi izatea, eta gainera, "ordezkutzen dituen konstituzioaren balio, printzipio, eskubide eta beharren" eta "Estatu espainolaren, batasun, independentzia, subiranotasun eta zintzotasunaren" adierazpen gisa egitea.**

**Horregatik, agindu judizialari zor zaion errespetua eta epaia nahi eta nahiez bete beharraren aurrean, baina gure ardurari aurre eginez, ondorengo hau onar dadin proposatzen dugu:**

### **MOZIOA:**

**1.- Zaldibiako udalbatzak, inposizio hau desagertu artean, udal arkupean plaka bat jartzea onartzen du honako testuarekin:**

**"Espainiako Auzitegi Gorenak xxxx errekurtsuan emandako epaiaren bidez, Espainiako bandera jartzera behartu du Zaldibiako udala, herritarren borondatearen aurka. Epaia betetzean, Zaldibiako udalak honako adierazpena helarazi nahi die herritarrei:**

**Herri bat herri da, iragan eta etorkizun, osatzen duten pertsona gehienek hala sentitzen dutenean. Ikur bat ikur da: logo, oihal zati, margo. Gertatu ohi da ikurra herri baten ametsaren sinbolo izatea. Orduan baliagarri da, gutasunaren sentipen txikien piztaile delako, ez gehiago.**

**Gerta liteke ikurra herriaren ametsaren sinbolo ez izatea. Indarraren legez eta legearen indarrez ezarria izatea. Orduan ere baliagarri izan liteke, inposaketaren sinbolo bihurtzen baita, bizilegezko gabezien gogoratzaile.**

***Bandera espainiarra zigor mehatxupean ezarritako sinboloa da gure erakundean. Zaldibiar gehienon nahiaren aurka eta beren ordezkarien erabakimenaren kontra jarria dago. Herritarren borondatearekiko errespetu falta da, askatasunez erabakitzeko eskubidearen ukapena. Horra hor bandera! Gaurko egoeraren ikur, jarri duenak berak jarri nahi ez duen oihal. Haizeak ironiaz darabil.”***